

Marmari

28. zenbakia / 2016ko abendua

Leitzako
aldizkaria

Auzoetako arnasa bilduz

- Herriko ikastetxeak eta euskara
- Leitzeko Kontsumo Taldea
- Gure Esku Dago
- Eraso sexistei buruzko protokoloa
- Leitzako irudiak
- eta gehiago...



zenbaki honetan:





A benduko hitzorduari jarraikiz hemen da aurtengo MARMARI aldizkaria. Euskara, herrigintza, kultura eta beste hainbat arlo jaso eta zabaltzeko asmoa izaten du aldizkariak. Eta honako aleak horiek biltzen ditu batez ere.

Euskara eta herriko ikastetxeak lotu ditugu hasierako erreportajearen, gure hizkuntza noiz eta nola txertatu zen hezkuntzan adieraziko diguna. Leitzako auzoetan izaten ziren eskolekin abiatu eta gaur egungo Erleta Eskolara iritsiko gara Mikel Illarregik prestatutako ikastetxeen ibilbidean.

Herrigintza ere aipatu dugu eta herrian sortu den LeitzEko Kontsumo

Taldea dugu horren adibiderik garbiena. Helburu jakin batekin sortu zen egitasmo berri hau: gure kontsumo erak eta ohiturak aldatzea kontsumo eredu osasuntsuago batera eta ekonomia arduratsuago bat bultzatzea. Orain arte egin dutenaz eta lantzen segi nahi dutenaz mintzatu dira Kontsumo Taldeko kideak.

Eraso sexisten aurkako protokoloa prestatu du aurtengo pestetarako Berdintasun Batzordeak, erasoen inguruko kontzientziazioa lantzeko, eta erasorik gertatuko balitz, nola jokatu beharko genukeen adierazten duen protokoloa da. Bestetik, Baliwebale lehiaketari

egindako tartea ere badugu. Aurtur hirugarren edizioa izan du eta orduko argazkiak eta uneak gogoratu osatu dugu idatzi bat.

Argazki eta irudi esanguratsuak ere bildu ditugu ale honetan. Batzuk atzerrian ateratakoak dira: beste kultura eta bizimodu batzuk erakusten dituzten erretratoak bildu ditugu, Elena Irigoienek egindako bidaiatik. Besteak Leitzan ateratako argazki eder askoak ditugu. Herritar askok dute argazkigintzarako afizioa eta orainoan, Amaia Iparragirri eskatu diogu duen bildumatik batzuk aukeratu eta orri hauetara ekartzeko. Ea gustuko dituzuen!

Herriko ikastetxeak eta euskara

"Eskolak, bestelako eragileekin batera, euskara bizi-iraunarazi du azkenaldiko hamarkada hauetan"

esaldia bota nahi dut hasiera batean, eskolak zer nolako garrantzia izan duen azalarazteko. Eskola aipatzen dudanean, eskolako komunitatea osatzen duten osagai ezberdinez ari naiz, noski; gurasoak, ikasleak, tokiko administrazioak,...

Dena den, "euskara eta eskola" esaldi berean jarri behar badira, eskolaren inguruko hainbat aipamen egin beharko dugu. Eskola aipatzearekin garai ezberdineko eskola ereduak, tokiak, esperientziak, egoerak eta errealitateak datozki-gu gogora.

Nolabaiteko hasiera emateko, aurreko mendeko egoerari erreparatuko diogu. Honetarako, Gloria Irurtia "andereñoarekin" hitz egin ondoren eta 2009an *Nafarroako ondasunak* egitasmoaren barnean, Patziku Perurenak eginiko elkarriketa horretatik hartutako hainbat datu izan ditut kontuan.

Hasieran herrian, erdi-gunean maisu-maistren eskola bazen, baina aipatu gabe ezin utzi, baserri-auzoek zituzten eskolak. Ondoren aipatuko ditudan eskolak baino lehenago, zenbaitek aipatzen duenez, Gorritaran auzoko Kantinan ere, eskolarako zuzendutako etxe zati bat izan zen. Ondoren, Gorritaranek; Ezkurreko gainera iritsi aurreko "kaxetan", "Don Benitoren" etxean, Erasotekoek; Aurtxikinean eta Erreka auzokoek; Ibiurren. Gero, 1954an eskola hauek berriro egin zituzten eta Erasote auzokoek ondoren Iparragirretarrek bizitoki izan zuten etxean ezarri zuten eskola berria. Errekakoek, berriz, ondoren Eguzkitza okindegia izan



Gorritarango eskolako ikasleak, Gloria Irurtia andereñoarekin (goiko lerroan ezkerretara dago).

den etxean. Eskola hauek "de temporada" deitzen ziren, sei hilabetekoak, alegia, urritik martxora zabaltzen baitziren, hain zuzen, ondoren, ikasketetan jarraitzen zutenek herrian jarraitzen zuten, maisu-maistrek edo mojetan. Mojetan, ordaindu behar zen. Eskola pribatu honetan ikasle asko zegoen, neskak batez ere. Hemen mutilek 9 urte arte bakarrik egiten zituzten ikasketak. Orduan ere, mojak saiatzzen ziren eskolatik kanpoko harremanetan, beraien ikasleak besteekin nahas ez zitezten.

Eskola hauetan, garai hartako Batxilergoko 4. maila bitarte ikasten zen. Jakina da, garai honetan gaztelera hutsez ikasten eta irakasten zela eta euskaraz mintzatzea, modu ezkutu edo nabarmenagoan debekatuta zegoela, gizarte mailan gertatzen zen moduan,

1965. urtean inguruko herrietako eskola egin zuten; kontzentrazioa zeritzon. Orduan baserri auzotako eskoletako ikasleak herrira etortzen hasi ziren. "Eskola komarkala" zeritzanak, *Gonzalo Queipo*

de Llano zuen izena. Hau, Espainiako militar frankista izan zen, eskolari izena eman ziona hain zuzen. Dena den, herrian sekula ez zuten horrelako izenarekin ezagutarazi eskola, eskola komarkala bezala baizik.

Orain berrogei urte, 1976an hain zuzen ere, euskarazko lehen taldeak sortu zituzten, euskaraz ikasteko eskubideari hasiera eman zitzaion orduan. Honekin eskola elebiduna izateko aukera zabaldu zen, bai Leitzaan, baita Lekunberrin ere.

Dena den, ezin ahaztu eta aipatzeko modukoa da, aurretik, 1967an Leitzaan sortu zela gerora ikastola izanen zen lehen taldea. Andereño bat, hamabost ikasleko talde batekin, hasi zen euskarazko klaseak ematen. Hasi eta irakasle horren familiarreko baten atxiloketa zela eta, gobernadoreak berak, asmo hori bertan behera utzi nahi izan zuen lokala itxiaraziz. Handik gutxira, elizako ganbaran hasi ziren erdi-ezkutuko klaseak ematen. Hasiera hartan, zazpi pisutako etxearen azpialdeko bajeatan, ume txi-

kien lehen Haurtzaindegiko gelak deitzen zirenak, kokatu ziren.

Egitasmoak, besteak beste, guraso eta irakasle askoren laguntzaz aurrera egin zuten. 1971. urtean jada, 85 ikasle joaten zen ikastolara. Gero pixkana, eta taldea handituz zihoan heinean, eraikuntza handiagoa behar eta mojek aurretik erabiliko Martinmielenea etxea erabili zuten. Bere egoera “alegala” zela esaten zen, legezkoa ez zen baina ilegaltzat ere ezin hartu.

Ikastolen inguruan asko hitz egin da, eta askotan isildu ere bai. Herri honetan beste askotan bezala, herritarren artean diferentziak sortarazi zituen mugimendu honek, edota honek markatzen zuen ibilbide berriak. Kontuan hartu behar da ingurumari honetan, ezarrita zegoen eskola “nazionalaren” alternatibamoduan aurkeztu zela Euskal Herriko toki eta herri askotan. Frankismoaren garaian horrelako pauso ausartak eman ziren han eta hemen. Klandestinitatean, makina bat pertsona ari zen lanean, eta makina bat aldiz ere, erasotu eta zigortuak izan ziren. Pedagogia aldetik, eskoletan ere lanean ari ziren norbanakoen lan eta ahaleginez gain, dudarik ez dago, eskola sistema moduan berrikuntza eta ikuspegi oso ezberdina markatu zuela ikastolen fenomenoak. Euskalduntasuna eta horren harira euskal irakaskuntza zuten helburutzat eta hori hala izan zedin irakasteko moduak eta edukiak egokitu zituzten.

Era berean, gizarte mailan mugimendu ezberdinek, politikoak batzuk, sozialak besteak eta egoeraren “inkonformismoaren” eredu bilakatu nahi zuten bestelako ildoak sortzen hasiak ziren Euskal Herriko eskoletan eskolak euskaldundu nahian. Eskola “nazionalak” izatetik, Euskal Herrian garatu behar ziren eskola mugimenduak sortzen hasiak ziren, Euskal Eskolaren hastapenak, alegia. Ereduen egituratzea nahitaezko pausoa bilakatu zen. Gaztelera hutsez izatetik, non euskaraz mintzatzeak debekua eta



Etxe honetan garatu zen ikastolako egitasmoa hainbat urtetan.



Behar ezberdinei erantzun nahian ikastetxea oraingo liburutegia eta Haur-eskola dagoen eraikinera eraman zen. Han amaitu zen ikastolaren ibilbidea.

zigorra zuen, euskararen presentzia gero eta nabarmenagoa izanen zuen bidea eraikitzen ari zen. Ereduak, bide horretan irtenbide modura planteatu ziren (A, B, D eta G Nafarroan), baina hauek euskarazko irakaskuntza jasotzeko esku-bidearekin egin zuten topo eta eredu eta zonifikatzea nahasi ziren, hau Nafarroan batez ere.

Hau maila orokorrean gertatzen zen arren, Leitzan ere, nahiz eta zonifikazioaren gatazkaz libre geunden, eskola-ikastola afera agerikoa eta nabaria zen. Biak genituen batera; ikastola batetik eta euskarazko ereduaren mugimenduen aldekoak bestetik, eta biak, zenbait kasutan eguneroko bizitza sozialean kontrajarriak edo moldakaitzak bihurtu ziren; tentsio une handiak izan ziren. Egun, gazteagoentzat ulertzea zaila bada

ere, garai hartan herrian “bandoak” bazi-rela baieztatu daiteke.

Dena den, guzti honi ikastolarekiko presioa erantsi behar zaio: garai hartako gobernuak, eta urtetan gerora ere boterean izan denak, eman zion “soluzioa”. Presio mediatikoa izan zen hura batetik, baina bestetik, eta batez ere, presio ekonomikoa. Bide hori erabili zuten barneko eztabaidak sortarazteko eta proposamen “engainagarri” ezberdinetan oinarrituta, ibili eta buelta, toki askotan bezala, hemen ere, ikastolako egitasmoa gelditzeko eta isilarazteko.

Lehen aipatu dudan moduan, ibilbide honetan, hainbat gurasok, irakaslek, herritarrek eta talde ezberdinek gogoz eta gogor jarraitu zuten lanean, egoera bideragarri ezina bihurtu arte. Diruaren eta subentzioen faltan, egoera larrian

geratu zen ikastola, zenbaki gorritan utzi arte. Hau 1990. urtean amaitu zen.

Administrazioak, ikastolako ikasleak eskolan matrikulatu zituen, garai hartan “fusioa” zeritzon jarraibide legala erabiliz. Irakasleak, derrigorrezko epea iraun ondoren, bitan banatu zituen; beraiek proposatutakoa onartu zutenak eta “besteak”, ohiko bidea onartu bitartean langabeziara bidali zituenak.

Pixkana egoera normalizatzen hasi zen eta bide horretan Leitzako eskolak indartze bidean jarraitu zuen. Hemen ere, dudarik gabe, askoren lanari esker euskaraz zen irakaskuntza ezartzen ari zen. Aurretik aipatu dugu 1976. urtean hasi zela D eredia. D eredia edo euskaraz ikasteko bide honek 1998. urtean izan zuen bere erabateko osaketa. 1998-1999 ikasturtean ikasle guztiak D eredian zeuden.

Ondoren, errazago gerta dadin koadro moduan azalduko ditut jaso ditudan datuak urtez-urte.



Ikastolako ikasleak jokuetan parte hartzen.

Ikasturtea	D eredian	Ikastolan	A eredian
1976-77	1. mailan 21 ikasle 2. mailan 9 ikasle	+/- 85 ikasle	
1984-85	324 ikasle	+/- 100 ikasle	216 ikasle
1986-87	333 ikasle		163 ikasle
1990-91	458 ikasle	Eskolara joan ziren*	92 ikasle
1992-93	+/- 520 ikasle		15 ikasle
1993-94	+/- 515 ikasle		17 ikasle
1994-95	+/- 440 ikasle		16 ikasle **
1995-96	+/- 435 ikasle		5 ikasle
1996-97	+/- 425 ikasle		4 ikasle
1997-98	+/- 450 ikasle	***

* Ikastolako ikasleak (100 inguru) eta 7 irakasle Eskolara joan ziren urtea

** Hasieran OHO (Oinarrizko Heziketa Orokorra) 8. maila arte zen. Urte honetan 6. maila arte soilik hasi zen egiten Erleta eskolan eta orduko 7. eta 8. mailak Amazabal institutuan (gaur egungo DBH -Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-).

*** 1998an A eredia desagertu zen.

+/- Zenbaki kopuru hauek gutxi gorabeherakoak dira, datu zehatzik ez dudalako aurkitu.

Orain hauetako gertaera asko oso aspaldikoak irudituko zaizkio askori, eta adina kontuan hartuta hala gerta daiteke, baina garai oso ezberdinak erakusten dituzte datu hauek. Oso bestelakoa da egungo egoera. Orain irakaskuntza guztia euskaraz egiten da hemen eta ikastetxe ezberdinak badi-rela ere kontuan hartu behar dugu. Eskola aipatzerakoan Erleta eskolaz ari gara, baina hortxe dago Amazabal institutua (DBH eta Batxilergoa) eta Itzairer Haur-eskola (0-3 urte bitartekoa).

Amazabal institutua aipatzekotan esan behar da, honen aurretik eta eremu beretsuan, “Nekazari eskola” egon zela, askok “agrikola” bezala oraindik orain gogoan dutena, hau 1964an sortua zen.

Lanbide eskola ere izan zen oraingo institutuaren lekuan. Inguruko herrietako ikasle asko eta asko etorri izan da hona ikasketak burutzera.

Ondoko koadroan 2016-17 ikasturtean dauden zentroak eta bakoitzak duen ikasle kopurua azalduko dut.



Erleta eskola “kontzentrazio ikastetxe” moduan eraiki zen, eta oraindik orain leku berean jarraitzen du. Honen aurretik baserri-auzoetan eskola txikiagoak eraiki ziren.



Hemengo honetan Nekazari eskola ezarri zen, “agrikola” deitu izan dena. Orain Batxilergoa ikasten da.

Itzairer Haur-eskola	49 ikasle (48 Leitzakoak)	49 ikasle (48 Leitzakoak)
Erleta eskola		
HH	106 ikasle (104 Leitzakoak)	296 ikasle (293 Leitzakoak)
LH	190 ikasle (189 Leitzakoak)	
Amazabal institutua		
DBH	170 ikasle (94 Leitzakoak)	230 ikasle (115 Leitzakoak)
Batzilergoa	60 ikasle (21 Leitzakoak)	
GUZTIRA		575 ikasle (456 Leitzakoak)

HAUSNARKETA

Alde batetik esan, datu multzo honek atentzioa sortarazten duela DBHko zein Batxilergoko ikasle kopuruen beherakadak. Honen arrazoia hauxe

izan liteke: hauetako askok ez dute aurkitu ikasi nahi dutena herrian bertan eta Tolosara, Iruñera, ... joan behar izan dutela moduluak edo antzekoak egitera.

Baina datuez gain, bada hausnarketa egiteko moduko hainbat galdera. Garbi dagoena zera da, bizitzan bezalaxe, garai ezberdinetan fase edota atal ezberdinak bizitzen eta biziarazten direla eta guztiak direla garrantzitsuak. Idatziaren hasieran luzatzen genuen baieztapenera itzuliz: “*Eskolak, bestelako eragileekin batera, euskara bizi-iraunarazi du azkenaldiko hamarkada hauetan*” egia dela ikusi dugu ongi, askoren lanari esker fase batetik bestera iraunarazi dugu euskararen egoera. Egoera aldarazi dugu, baina ez dugu “irabazi”, irabazterik baldin badago.

Aurreko egoera gainditzeak ez du geroa ziurtatzen. Gero eta euskaldun kopuru handiagoa eta anitzagoa azaltzen zaigu gizartean, baina hala eta guztiz ere, erabilerak beherantz egin du toki askotan. Ez dugu geure burua desanimatu behar, baina Leitzak berak, oso baldintza egokiak baldin baditu ere, euskararen egoerak behar den bezala tokia har dezan, hemen ere, gainbehera joan daiteke urteen eta lanaren poderioz lortutako maila. Leitzak, hizkuntzaren egoerari dagokionez eta orain erabiltzen den terminologia kontuan hartuz, “arnasgunea” dela esan daiteke.

Eta hori horrela, hizkuntzaren ibilbidean “*ez duenak irabaz dezake*”, eta hori da herri erdaldunetan gertatzen ari dena, euskararen inguruko ikerketek erakutsi bezala. Baina, “*duenak, galtzeko arriskua du*”, herri euskaldunetan gertatzen ari dena.

Orain gutxi aipatu dugu; ez gaitetzen desanimatu, ez dezagun etsi eta etsiak ez gaitzan hartu. Hizkuntza Herri baten adierazgarria da, geurea euskara da; euts diezaiozun askok eskoletan, kalean, lanean ... egin duten lanari eta zabal dezagun horri dagokion fruitua. Ulertzeko moduko hitzetan: Euskaraz MINTZA! EUSKARAZ BIZI!

Mikel Illarregi Elberdin



Bi urte munduan barrena bidaiatuz beste bizimodu batzuk ezagutu nahian

Orain, abenduan, bete da urtea Elena eta Aritz bidaia zoragarri batetik itzuli zirena. Leitza utzi eta ia 2 urte pasa zituzten kanpoan Elena Irigoien, Mendialdeako garapen agenteak eta bere bikote Aritz Aierbek.

Beti izan dute bidaiatzeko grina, eta beti ibili dira batetik bestera herrialdeak ezagutzeko. Baina beti oporretako egunek mugatuta, hilabeteko egonaldiak eginez. 2014ko urtarrilean ametsa egi bihurtuz Asiara abiatu ziren motxilak bizkarrean hartuta, epe luzeagoko bidaia bati ekiteko.


13 hilabete pasa zituzten Asia zeharkatzen: Nepal, India, Tailandia, Kan-

bodia, Laos, Birmania (Myanmar), Vietnam, Singapur, Indonesiako Solawesi irla, Zeelanda Berria hegoaldeko irla, Indonesiara berriz Bali eta Floresera eta azkenik Filipinak ezagutu zituzten.

Etxera itzuli ziren 2015eko otsailean, baina denbora gutxirako, 5 astez egon ziren familia eta lagunekin, motxilak kargatu eta berriz abiatzeko. 2 urteko bidaldi honen bigarren zatia Hego Amerikan barrena egin zuten, martxotik abendura bitartean. Kuba, Mexiko (Yucatan, Chiapas, Oaxaca), Guatemala, Honduras, Nikaragua, Costa Rica, Panama, Colombia, Ekuador, Amazonan

barrena 5 egun itsasontziz, Peru, Txile, Argentina eta Bolivia.

Motoz, trenez, autobusez itsasontziz eta bizikletaz ibili ziren Asian eta Hego Amerika zeharkatzeko. Garraio publikoa erabili zuten beti, taxirik ez sekula, pentsatzen zutelako diru gutxiago gastatuz ere bidaiatu zitekeela. Eta hala egitea lortu zuten: "Leku zoragarriak eta kultura ezberdinak topatu ditugu bidean. Bai Asian eta baita Hego Amerikan ere. Beste herrialdeetako jendea nola bizi den ikusteko jakin-mina genuen. Beti izan dugu kuriositate hori, eta jakin-mina asetzeko modurik onena kanpoko herritar horien bizimodua ber-



tatik bertara ezagutzea izan zen. Esperientzia ederrak bizi izan ditugu” aitortu du pozik Elenak.

Elena eta Aritz biak bakarrik ibili dira esperientzia berri honetan. “Beti ez zen samurra izan eta animoari eustea

zaila izaten zen, batzuetan, baina ongi eramaten jakin genuen, bakoitzak bere zaletasunei leku egin genielako hasieratik. Eta horri eutsiz lortu genuen oreka”. Elenak garbi zuen Asiako bidaia budismo eta meditazio ezagutu nahi

zuela eta ikastaroak egiteko aprobetxatu zuen, eta horrela izan zen, meditazio erretiro desberdinak egin zituen bidaiari zehar. “Meditazio teknika mota asko daude, “Vipassana” ere egin nuen Ekuadorren, 10 egun hitz egin gabe,



oso gutxi jaten eta egun osoa medita- zioan. Saioak gogorrak izan baziren ere, norbera bere burua ezagutzeko, lasaitzeko eta hobetzeko teknika ezin hobea. , esperientzia ikaragarria eta bizitzako bidea hasita”. Aritzek berriz motoan ibili, arrantza eta trekking-a zaletasun zituen:, eta haiek asetzeko aukera paregabea izan zuen, bai Asiako mendilerroetan, zein Hego Amerikako kostaldean.

Nondik nora ibiliko ziren gutxi-gora-behera aurreikusi bazuten ere, lotarako eta jateko tokiak aldeztu erreserbatu gabe izan zituzten. Hala ere, ez zuten arazorik izan lotarako ostaldea bilatzen. Kuban egin zuten egonaldiaz

asko akordatzen da Elena. “Leitzan bizidena Oswaldokubatarren amaren etxean egon ginen eta asko eskertzen dugu euren etxeko atea zabaltzea, ikeragari ongi hartu gintuzten. Kubako egonalditik egunik onenak izan ziren niretzat, izan ere oso desberdina baita Kuba turisten ikuspegitik ezagutzea edo herritarrek beraiek erakustea”.

Urrutiko lurraldeetan zabilazanean gertuko jendearen bisita izugarri estimatzen da, eta halaxe du gogoan Elenak: “Kanpoan geunden bitartean hiru bisita jaso genituen; Tailandiara Berrobiko lagunak etorri ziren. Mexikon, Oaxaca aldera genbiltzala, nire koadrilako Lorea eta Cesar joan zitzaizkigun egun batzuk

pasatzera. Hondurasen ginenean ere, beste bisita bat jaso genuen, hemen ere koadrilako beste bi lagun: Lidia eta Jonek oporraldia Hondurasen antolatuta zuten gu bisitatzeko aitzakian”.

Zailtasunak eta eragozpenak ere izan zituzten bidean. Vietnam iparraldean, esaterako, hizkuntzarekin izan zuten arazoa, herritarrekin elkar ulertzea ez baitzen oso samurra izan eta jatetxe batean txakur haragia eskatu eta jan egin genuen jakin gabe. Bisitatu zituzten lekuetatik gustukoena aukeratzea eskatuta berriz, bat hautatzea oso zaila dela aldeztu aurretik aipatu arren, 2 leku nabarmendu ditu Elenak, denbora gehiena egon garen tokiak: “Filipinetako Siqui-



gor irla asko gustatu zitzaigun. Asiako herritar “latinoenak” dira janaria eta hainbat izenek eta hitzak gazteleraz dituzte. Bertan egin genituen parrandak eta karaokea gogoan ditut oraindik, Inglesa gehienak hitz egiten dutenez errexagoa da edozeinekin hitz egitea, jendea oso jatorra. Egunero arrain freskoa jateko aukera izan genuen, gainera, eta hori oso gustagarria izan zen.”.

Nabarmentzeko bigarren tokia, Mexicoko Oaxaca estatuan dagoen San Agustín izeneko kostako herri txikia izan da, leitzako Junkalek eta Aitziberrek gomendatuta. “Oso leku polita delako eta oso esperientzia ederra bizi izan genuelako han”.

Lekuak gomendatzea oso pertsonala dela dio Elenak. Baina garbi dago aipatutako bi leku hauek ezagutzea merezi izan zuela Elena eta Aritzentzat: “seguru gaude bi herri horietara itzuliko garela noizbait”.

Kontraste handiko lekuak ikusi dituzte biek ala biek: “Gure gizartearen antzik ez duten kulturak eta herri-tarrak ezagutu ditugu bidean. 2 urtez ordutegirik gabe ibiltzea ere ikaragarria izan da. Bidean ikusi eta ikasitako guztiak balio izan digu beste balo-

re batzuk jasotzeko. Budismoari eta meditazioari esker bizitza ikusteko modua zabaldu egin zait. Oso baliagarria egin zait eta han ikasitakoa nire egunerokoan txertatzen saiatzen naiz berriz Euskal Herrira etorritakoan. Baina bidaiako esperientzia aberatse-na jendea izan da, bai bisitatu dugun herrialdeko jendea eta bai gu bezalako bidariak ere, oso denbora gutxian harreman oso aberatsak sortzen dire-lako. Baliabide gutxirekin bizi direnetatik asko ikasi dugu”.

EUSKARAZ GARA DOKUMENTALA

Euskararik gabe zer litzateke Euskal Herria?

Euskararen inguruko kezka, bizi-penak, jarrerak, iritziak, hizkuntzaren etorkizuna eta beste hainbat kontu biltzen ditu *EUSKARAZ GARA* dokumentalak. Euskara izan zuten hizketagai Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 45 herritarrek, horietatik 14 leitzarrek. Guztien testigantzak jasoz sortu zen dokumentala, herritarren eta eskualdeko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin. Dokumentala aurten eman da 4 herrietan, apirila eta maiatza bitartean. Baina ikusteko aukerarik izan ez zuenak youtuben zintzilikatuta dago *Euskaraz Gara* izenarekin.

Dokumentalaren asmoa euskararen aldeko motibazioa eta jarrerak indartzea zen batetik, eta euskararen egoeraren inguruan gogoeta eginaraztea, bestetik. 4 herrietako lekukoek jarri dute ahotsa: adin ezberdinetako jendea, euskaldun berriak eta zaharrak, euskaltzaleak eta erdararako joera dutenak, denen aho-tsak bildu dira bideoan.

Euskararen aldeko jarrerak nabarmenak dira bideoaren hasieratik. Eskualdeko herritarrek lotura handia sentitzen dute hizkuntzarekiko “odolean daramadan zerbait, txikitatik ikasi nuen hizkuntza, gurea den zerbait, altxor bat...” gisa honetako adierazpenak eginez hasten dira. Euskaldun berrien testigantzak ere badaude, “ez da bide erraza izan, esfortzu handia eta sakrifizioa eskatu zizkidan euskara ikasteak, baina merezi du, bere ordainsaria izan du.



Patxi Lizarraga,
Leitza.



Oihana Lujanbio,
Goizueta.



Mari Jose Sarratea,
Leitza.

Nire sustraiak berreskuratzen lagundit” esaten du Mari Jose Sarrateak, Leitza biziara etorri eta euskara ikasteko beharra ikusi zuela gaineratuz.

Dokumentalak jasotzen ditu beste-lako iritziak ere. Gaztelaren presentzia eta irabazten ari den terrenoa ekarri dute gogora batek baino gehiagok, “telebista, internet eta sare sozialen eragina izugarria da eta bide horietatik jasotzen dugun gehiena gaztelaraz da”. Hizkuntzak bizi duen egoera hori biodibertsitatearekin parekatu du bere kontakizunean Miel Mari Elozegi “Luzek”: “Euskara, erdaraz inguratuta dagoen irlatxo bat da. Edozein animalia edo landare espezie egoera horretan balego, epe luzera kontserbazioa bermatu ahal izatea oso zaila litzateke”.

Hizkuntzaren kalitateaz ere hausnartu dute parte-hartzaileek, “irakas-

leek edo adinekoek esaten dute gaizki hitz egiten dela orain, ... hizkuntza beti aldatu izan da, orain, seguru aski ere belozidade handiagoan. Baina aldi berean, hizkuntza bat bizirik egoteko beharrezkoa du egokitzea eta aldatzea” azaldu du Oihana Lujanbiok.

Etorkizunari begira jarrita, guztiak ados jarri dira euskara babestu beharra dugula azpimarratzerakoan. Iritzi asko bota dituzte aurrera begira jarrita: “beharrezkoa dela hizkuntza bat, herri bezala identifikatzen gaituelako”, “zerbait baldin bada gurea, euskara da. Eta horri ez baldin badiogu eusten, zer mantenduko dugu ba!” “jaioz geroztik ikasitako hizkuntza galtzen uztea ezin da utzi!”, “pena da jende gehiago ez izatea kontziente gauza horietaz guztiez”, “zer litzateke Euskal Herria euskararik gabe?”.


LEITZA Amaia Iparragirrenen begietan

Argazkigintza gustuko du Amaia Iparrak, eta sarritan ikusi dugu argazkiak ateratzen herriko festa, ekitaldi edo mendi txokoetan. Gaurko MARMARI aldizkarian Amaiairen begietatik ikusiko dugu Leitza. Hemen ekarri ditugun erretratuak bere bildumako ale batzuk besterik ez dira, eta guztiak Leitza iri lotutakoak. Plaza ingurua, mendia, urtaro ezberdinak, kultura, festa ... guzti hauek biltzen dituen irudi dotoreak ekarri dizkigu. Gozatu!









HITZOKEI

Hizkuntzarekin jostatzeko aitzakia ematen digu HITZOKEI tarreak, eta aurtengo alean ere ekarri dugu hitz-joko sorta bat. Euskararekin dibertitzen diren hainbat lagunek sortutako egitasmoa da. Hemen bildu ditugun hauek eta beste asko topatuko dituzue honako helbidean: <http://hitzokei.tximinia.net>.

Ea gustuko dituzuen, ongi pasa!

Aberia ala hil: euskal esamolde jatorria, etxeko kalentadoria puskatu eta neguan ur hotzarekin dutxatu behar denean erabiltzen dena.

Abestondoa: zure etxepan gau osoa kantatzen pasa duen koadrilagatik hurrengo egunean duzun nekea.

Adarkadabra: magiari esker entzierroan adarkadarik ez jasotzea.

Aurrekularitza: Euskal Gobernuak, inauraguziyo-saraotan dabilenean.

Azken txanpana: zerbait lortzeko gutxi geratzen denean alkohola edaten hastea

Azpiradora: Hautsa alfonbraperatzeko gailua.

Banda zabala: Zabalatarren berbena taldea, internetaren garaikidea.

Barack kaldo: Obamak hartzen duen salda, Bizkaian oporretan egoten denean.

Baradizu fisgala: santuak, aingerutxoak eta bestelako biztanle dibinoak elkarren kuzmantzan dabilen zerualdea.

Bildotserre: Gaurkoa bezalako egunetan, bildotsa jan ostean, urdailean sentitzen den sentsazio mingotsa edo garra-tza.

Birzikleta: behin eta berriz erabil daitekeen bizikleta.

Bisamona: 110 urte dirauen aje guztien ama.

Car, car, car: Ingalaterrako automobil baten barruan euskaraz barre egiteko egokia den onomatopeia.

Deuskaraz: Erdara hutsez.

Diru, dibi, dibat, dizero: Diruak poltsikoan egiten duen denbora neurtzeko egiten den atzerakako zenbaketa.

Dirurik.es: Lan barik geratu direnen webgunea.

Disgustazio menua: txarto jan eta garesti ordaindu.

Egutgezurra: Urtarhila, Hotzaila, Zamartxoa, Apurhila, Nahihatza, Nekaina, Oztahila, Abhustua, Erahila, Euria, Arazoa, Abentura.

Elsa Tapaki: Sekula hotzik ez duen neska ilehoria.

Elur proto-kili-koloa: Ez dakizunean zer egin, aktibatu edo ez aktibatu elur protokoloa.

Estrebiño: Arabako kantu mota bat, lelo bera askotan errepikatzen duena.

Ernegarren aldiz: bilera batean, kasu, jendea erne ez dagoelako ernegatzeraino hamaika aldiz errepikatu beharrekoa.

e-bakia: bake birtuala.

Freeki: inoren mende eztaon frikia.

Frenadoll: Panpinen burukominak kentzeko botika.

Gabon kantak: Abenduko abesti tipikoak Afrikako Gineako golkoko kostaldeko herrialdean.

Galdereño: bere metodo pedagogikoa galderak egitean oinarritzen duen emakumezko irakaslea.

Garia bai: Nekazarien hauteskunde-koalizio baskista Nafarroan.

Garizumba: 40 eguneko fitness eta dantza programa intentsiboa.

Gaztafari: pastafariaren ezinbesteko osagaia.

Gazteinak: Udazken eta neguan gazteek jan ohi dituzten fruitu lehorrak.

Gripia: Osasuntsu zaudenean baino 3,1416 aldiz okerrago sentiarazten zaituen gaixotasuna.

Gym & yan: argaldu nahi duenaren unibertsoan bizi diren indar kontrajarrak.

'Hainekan': aurreko egunean Oktoberfesten egonda, lanetik zergatik agertu ez zarenaren esplikazioa.

Hatxis: jesus!.

Histegia: Iparraldean, hitz baten esanahia ez dakizunean sortzen den nortasunaren egoera neurotikoa

Hitzokei: esaera zaharrak eta txiste berriak 2.0.

Homer: Etxezalea.

Hordizia: Mozkortiz betetako Gipuzkoako herria.

Horegon: mugitzen ez den AEBtako esatua.

Hortografia: itxak hondo eta susen escribiduteco harau multxoak.

Hortzimuga: haginak bukatzen diren tokia.

Host take: ostatu hartu. Adb.: Hik neri etxerako inbitaziñua luzauko HOSTAKE

'Ixilikeon!' valley: Gurasoek euren seme-alabak isilarazteko gailuen teknologia ikertzen den tokia.

Ihes guri can: Bartzina eta Sanz, Obamaren leloa imitatuz

Ikaro borda: Lapurtar idazle-postaria, gutunak banatzen eguzkitik hurregi ailegatu eta itsasora erori zena.

In du rain: Miguel has made euria.

Inundao: donde está i?

Ipadez: Ta ni negadez.

Ipurmasaila: un culín mas allá.



Eraso matxistarik gabeko pesten alde

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko berdintasun batzordeak eraso sexistarik gabeko jai guneen tokiko protokolo bat sortu du. Eskualdeko Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasun Planaren (2013-2017) barne jaiotako egitasmoa da, honako helburu zehatzak barnebiltzen dituenak:

Emakume eta gizonen arteko parrakidetasunaren alde aktiboki lan egitea, begirada bereziki prebentzioan jarritz.

Jai giroan emakumeenganako indarkeria matxistaren aurrean erantzun bateratu eta koordinatu bat emateko pautak martxan jartzea eta indarkeria erradikatzeko bidean konpromisoak hartzea.

Eraso matxistak herritar guztion ardura denaren kontzientzia kolektiboa garatzea.

Emakumeen zer, nola, noiz eta norekin galderen erantzuna aukeratzeko eskubidea dutela gogoraraztea eta gizonezkoei ezetza ezetza dela oroitaraztea.

Eraso bera identifikatzeko pautak ematea eta eraso gertatzen den momentuan eskaini beharreko arreta, laguntza, dauden zerbitzuak nahiz erantzun soziala definitzea.

Indarkeria matxistarik gabeko guneak sortzea eta horrela identifikatzea.

Festa aurretik protokoloaren berri eman zitzaient bertako tabernariei, herriko eragileei, Pesta batzordeko kideei, Guraso elkartei, Udal ordezkariari eta jai giroan murgildurik dau-

den bestelako mugimenduei. Dokumentuarekin batera udaletxeko berdintasun zinegotzia den Oihane Calderonen telefonoa nahiz berdintasun teknikariaren posta elektronikoa (jantxo@lagagizartezerbitzua.org) pasa zitzairen, edozein zalantza izanda edo laguntzaren aurrean, baina batez ere erasoak pairatu edo ikustearen kasuan, kontaktu zuzena izan zezaten. Horrez gain, kontzientziario kanpaina bat egin zen herritarrei protokoloaren berri emateko eta sentsibilizazio hori handitzeko asmoz esku moreen pingak banatu ziren.

Eskualdeko berdintasun batzordeak pestetako kanpainaren barnean eraiki den protokoloaren balorazio positiboa egin du. Ez da intentsitate altuko eraso matxistarik egon, bai ordea, intentsitate baxuko erasoak eta horrek gogorazten digu emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egiteko ildoan jarraitzea ezinbestekoa dela. Hori dela eta, berdintasun batzordeak bide horretan jarraitzeko lanean dihardu, jai giroetako protokolutik haratago, edozein urte sasoi eta eremutan gerta daitezkeen emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloa sortzen. Herritar oro gonbidatzen du berdintasun batzordean parte-hartzera.

Hurrengo lerroetan jai giroan aplikatzeko eraso sexistei aurre egiteko protokoloaren nondik norakoetan zentratu gara:

JAI GUNEETAKO PROTOKOLOA LANTZEKO EREMUAK

Bi maila ezberdinak kontutan hartuz garatu da:

1. Eraso sexisten aurkako prebentzioa sustatzea, pertsona guztien sentsibilizazioaren eta inplikazioaren bidez lortuta.
2. Gure jaietan ematen diren erasoen kontrako benetako erantzun soziala bultzatzea eta jakiteko nola

jokatu behar den indarkeria kasua gertatuz gero, tresna sortzea.

Dokumentu honi esker, indarkeria matxistaren aurrean ardura duten eragile guztiak koordinatuak egotea lortu da batetik eta herriko elkartei, tabernei, txoznei eta festetan parte hartzen duten beste agenteei laguntzea ere lortu da bestetik.

BA AL DAKIGU ERASO SEXISTA BAT IDENTIFIKATZEN?

Emakumeenganako indarkeria, hots, **genero indarkeria**, genero maskulino eta femeninoan eragiten duten baldintza sozio-kulturalen ondorioz, emakumea gizonarekiko menpekotasun maila batean kokatuz, emakumeok sufritzen dugun indarkeria bezala definitzen da. Indarkeria honen helburua da botere harremana mantentzea, kontuan hartuz botere harreman horretan gizonak emakumeen goikopartean kokatzen direla

Beraz, sexuen arteko botere erlazioen ondorioz emakumeon independentzia eta osotasuna urratzen duten jarrerak indarkeria sexista dira. Fisikoa, psikologikoa, afektiboa, sexuala edo ekonomikoa izan daiteke eta forma anitzak izaten ahal ditu: irainak, ustezko hitz ederrak, mespretxuak, umiliazioak, jeloskortasuna, xantxia emozionala, baimenik gabe egiten diren ukitzeak, jazarpen sexuala, kolpeak, bortxaketak, hilketak...

Jai eremuetan honelako jarrerak areagotzen dira, ondorioz ezinbestekoa da prebentzio eta erantzun neurriak jendarte orok lantzea. Indarkeria honen emakumeen beldurra eraikitzen da eta beldurra sentitzen irakasten zaie.

ZER EGIN ERASO BAT IKUSTEN BADUZU?

- Emakume/neska bat eraso egoera batean dagoela uste baduzu, haren-gana hurbildu. Galdeiozu ea ongi dagoen eta laguntzarik behar duen.
- Errespetuarekin entzun.

- Ez jokatu mesfidantzarekin, erasoak ez ukatu edo ez pentsatu beraren fantasiak direla.
- Ahalik eta informazio gehien lortu. Eraso larrien kasuan 1-1-2 zenbakira deitu.
- Neska/emakumeari kulpa kentzen lagundu. Erasotzailea baita arduradun bakarra.
- Bera laguntzeko konpromezua hartu, ez pentsatu beste pertsona batzuek lagunduko diotela.
- Adierazi erasotzaileari egoera gaitzesten duzula, ez zaizula dibertigarria iruditzen.
- Zure lagunena bat bere bikotekideak jipoitzen badu, jakinarazi hori ez dela normala, ez dagoela bakarrik, eta lagundu ezazu informazioa edo laguntza eskatzera.
- Ez onartu erasorik: ekin, eta salatu itzazu horrelako egoerak.

ZER EGIN ERASOTUA BAZARA?

- Eraso egoera batean "sua" oihukatu jendearen arreta bereganatzeko.
- Egoera bat gustuko ez baduzu, esan (ezagun bat baldin bada ere). Argi eta garbi adierazi. EZETZA ezetz da!
- Jazartzen edo jipoitzen bazaituzte, bilatu lagunena babesa, kontu iezaiezu zer gertatzen zaizun. Bilatu lagun-tza. EZ zaude bakarrik!
- Gogoratu ezazu zure begirada, ahotza eta gorputza erasotzaileei aurre egiteko baliabideak direla.
- Oraingo salaketarik jarri nahi ez baduzu ere, gogoan hartu: gorputza garbitzen baduzu, epaiketa batean lagungarria izaten ahal diren frogak galduko dira.
- Deitu konfiantzako norbaiti, lagun edo senideren bati.
- Joan zaitez ospitalera edo auzitegira, zer gertatu zaizun kontatzera eta auzitegiko medikuaren arreta jasotzera.
- Bilatu gai honetan adituak diren pertsonen laguntza. Ez zaude bakarrik!

Berdintasun Batzordea



Lehiakideak eta laguntzaileak.

Kale edo Bale... BALIKEBALE!

Lehiaketaren 3. edizioa ere arrakastatsua izan da

Egin da aurtengo lehiaketa. Azaroaren 19an izan zen, aurreko urteetan baino hilabete lehenago. Eta daki-zuen moduan, Arantxa Agirre, Irune Alkorta eta Maialen Gonzalez izan dira 3. edizioko irabazleak. Ikuskizun ederra joan zen aurtengoa ere, azpimarratzekoa da 12 lehiakideek egindako lana lehiaketa egunean bertan, nahiz aurretik gaiari eskaini zioten denbora eta izan zuten ikasteko grina. Ahaleginak merezi zuela erakutsi zuten, 4 taldeak nahikoa parekatuta ibili zirelako.

Hainbat berrikuntza izan ditu oraingo emanaldiak. Arestian aipatu bezala data izan zen horietako bat, Eguberrietan egin ordez, lehenago egin delako. Bestetik, lehiaketa iragartzeko kartelak lehiakideak zein izanen ziren aurreratu zigun, lehiakideen argazkiak agertu baitira kartel nagusian. Eta azkenik, ariketei dagokienez, proba berriak izan direla gaineratuko dugu. 3. edizio honek galdera zailxeagoak ekarri dituela aipatu zuten ikusle nahiz parte hartzaileek, baina, edozein modutan, 3 urteotako

emanaldirik gustukoena izan zela ere aitortu zuen batek baino gehiagok.

PROBA ETA ARIKETA BERRIAK

Eroglifikoak, etxeen atek, hizki saltsa eta bukaerako probak izan ziren aurtengo ariketa berri esanguratsuenak. Guztiak, herriaren ezagutza lantzeko pentsatuak izan dira, eta modu batera edo bestera aurten ere bertaratutako guztiek ikasi ditugu: hainbat etxeen izenak, auzoak, jada erabiltzen ez ditugun tresna zaharren izenak eta bestela-

ko zenbait jakingarri. Baina guztien artean ustekabea sortu zuten probak finalaren aurretik jokatuakoak izan ziren. Lehenengoan telefono dei bana egin behar izan zuten, nora deika ari ziren jakin gabe

Bigarrenean, Erramusenea etxera joan behar izan zuten lehiakideak tresna zehatz bat ekartzeko eskatuta. Joan-dako lekuan, garai bateko 3 tresna zeuden eta lehiakideek asmatu egin behar zuten eskatutako tresna zein zen hiru horietatik.

Hirugarren probarako oihalez estalitako 3 kaxa sartu zituzten zine aretora. Lehiakideek begiak estalita, eskuak sartu eta barruan ezkatututa zegoen objektua bilatu eta atera behar zuten, zer zegoen jakin gabe. Batean makarroiak tomatearekin nahastuak zeuden eta pila bat aurkitu behar zuten. Beste batean akuriak zeuden, belar artean, eta haien azpian, giltza txiki bat bilatu behar zuten. Hirugarren kaxa gelatinaz beteta zegoen eta txorroskiloa zegoen barruan gordeta.

Oso entrenigarriak izan ziren proba hauek, eta hauekin batera kantuak asmatzearen ariketa ere nabarmentzekoa izan zen, sortu zituen barre algarengatik.

LEHIAKIDEAK

Aurreko urteetako joerari eutsiz, 12 parte hartzaileak koloredun kamisetak jantzita ikusi genituen:

- Talde urdina izan zen irabazlea: Arantxa Agirre, Irune Alkorta eta Maialen Gonzalezek osatutakoa.

- Talde arrosa izan zen bigarren: Markel Barriola, Manex Moreno eta Martxel Intsaustirekin.

- Talde moreko kideak hirugarren egin zuten: Saioa Sagastibeltza, Jokin Sagatibeltza eta Eneritz Astibia izan ziren.

- Eta laugarren geratu zen talde berdean Marijose Larrea, Pakitto Sagastibeltza eta Oihana Saenz aritu ziren.

SARI EDERRAK IRABAZTEKO AUKERA

Balikebale lehiaketak sariz betetako saskia prestatu zuen 3. ediziorako ere:

- Irabazleentzat 450€ko txekoa; Argiñano jatetxean 3 laguntzat otordua; Zumaiako Santa Klara nekazaletxean asteburu pasa; Anjel Mariezkurrenak antolatzen duen Kantu bazkarirako sarrerak eta produktu sorta bana.

Bigarren geratu zen talde arrosarentzat:

- Alex Mugika jatetxean otordua; Aiako Sagarmaneta nekazaletxean asteburu pasa; herriko 46 denda, jatetxe, taberna edo establezimenduk osatzen duten Kaxkabeltza elkartearen eskutik 150€ko opari txartela elkarteko kide diren tokietan gastatzeko; 4 ARO liburuaren ale bana eta produktu sorta bana.

- Hirugarren taldeak Casa Julian jatetxean otordua; KATEZ musika taldearen CD eta kamiseta; Jaso ikastolako ikasleen *Batek Daki!* Musikalerako sarrerak; eta produktu sorta bana.

- Laugarren taldearentzat: Olaizola sagardotegian otordua; Aurrerako bazkari txartelak inauterietarako eta produktu sorta.

Hauk guztiak lehiakideentzat, baina izan ziren publikoaren artean banatzeko beste 3 sari. Bideo bidez Gabriel Saralegi eta Naroa Fernandezek emandako pista batzuekin zertaz ari ziren asmatu behar zuen publikoak. Anikote, Tar tar kar eta Orain elkarteak ziren asmatu beharreko hitzak, eta sariak



Aintzane Sagastibeltzak, Ane Vazquezek eta Dani Alvarezek irabazi zituzten.

LAGUNTZAILE ETA BABESLEEI ESKERRAK

Proiektu guztietan bezalaxe lantalde batek hainbat laguntzaile izaten ditu ondoan, itzaletik eta isilean lan eginez. Ekimen honetan ere ezinbestekoa izan da hainbat erakunde eta herritarren laguntza. Batetik Leitzako Udalaren babesa eta diru-laguntza, bestetik saria ematen lagundu duten guztien borondate ona. Eta ezin aipatu gabe utzi 18 pertsonako laguntzaile taldea, iaz bezala aurten ere prest agertu direlako eskatutako lanetan esku bat botatzeko. Izendatutako guztien laguntzarik gabe ezin izanen litzateke Balikebale gauzatu. Guztiei eskerrak eman nahi dizkie lantaldeak.

BALIKEBALERIK EZ HURRENGO URTEAN

Euskara Zerbitzutik abiatutako ekimenak hirugarren urtea bete du. 2014an abiatutako proiektu honek atsedeen bat hartuko du, oraingoz. Hurrengo urtean ez da lehiaketarik egiteko asmorik. Horrek ez du esan nahi, gerora, etorkizunean eginen ez denik, indarrak hartzeko geldialdi bat besterik ez da izanen. Hurrengo egiten denerako taldeak osatzeko nahikoa denbora baduzue, beraz animo!



Gure Esku Dago Mendialdeko aurkezpena.

GURE ESKU DAGO

Hainbat herrietako jendea bildu ginen 2016ko abenduaren 17an Lekunberrin. Mendialdea eskualdeko hainbat herrietako biztanleak ginen denak, izan ere, Euskal Herriko beste hainbat bazterretan bezala, gurean ere, Gure Esku Dago ekimenaren urrats berri bat emateko garaia da.

Gogoratuko duzuen moduan, 2014an Durangotik Iruñera herriz herri eta esku esku harturik giza kate erraldoia osatu genuen, 150.000 lagunek parte hartuz.

2015ean Euskal Herriko hiriburuetan hautetsontzi erraldoiak eraiki genituen, herritar ezberdinen nahiak biltzen zituzten oihalak elkar josiz.

2016an Euskal Herriko hainbat txokotan herri galdeketen lehen olatua harrotu zuten eta mendialdean gure tontorrek argitu eta ilusioz piztutako kriseiluak aireatzen hasi ziren.

Baina zer da Gure esku dago? 2013an sortu zen dinamika herritarra da, alder-

di politikoetatik at sortu zena. Sentsibilitate, kolore eta jatorri ezberdinetako herritarrak erabakitze eskubidea gauzatzeko helburu komunaren inguruan biltzen dituen.

Gure eskualdearen garaia ere iritsi da ba! Eta horretarako Goizueta, Arano, Leitza, Areso, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko hainbat herritar bildu gara. Adin, lanbide, alor eta sentsibilitate politiko anitzekoak gainera eta horren isla dugu aurkezpen publikoan bildu ziren kideak.

Orain arte gure aldarrikapenak gure herriko plaza eta txokoetan egin ditugu, baina elkarrekin, indarrak batuz "Hemen gaude!". Hala izena du sortu berri dugun proiektuak. Helburua? herritarrek euren borondatea modu argian adieraztea.

Hau da gure aukera! 2017ko ekainean herri-galdeketa egingen dugu. Horrek berme juridikoa eta baliozkotasun legala izan dezan protokolo zorrotza jarrai-

tuko da eta ez hori bakarrik, hemendik ekainera bitarte hainbat pauso eman beharko ditugu galdeketa gauzatu ahal izateko.

Pauso hau eman aurretik gure herritarren zalantzak eta iritziak biltzeko inkesta egin dugu. Eta gure gizartea osatzen duten eragile anitzekin elkartu ondoren, horietako askoren atxikimendua lortu dugu jada. Nabarmentzekoa gainera, orain arte dinamikarekiko itxirik egon den jendea hurbiltzea lortu dugula. Inkestaren emaitzetan eta hartu-eman horietan argi ikusi dugu herritarren oniritzia badugula. Horregatik, 2017ko ekainean erabakitze dugun eskubide demokratikoa egikaritzeko dugu.

Eta orain zer? Lehenengo urratsa sinadura bilketa da. Herri-galdeketa egiteko ezinbestekoa da zuen babes. 16 urtetik gorako biztanleen %10arena beharko dugu Leitza eta Lekunberriren kasuan, eta %15 gainontzeko udalerrie-



tan. Horrela beraz, sinadura kopuru hau bildu beharko dugu egitasmoak aurrera egin ahal izateko: Leitzan 253 sinadura, Goizuetan 96, Aranon 15, Areson 38, Araitzen 70, Betelun 43, Larraunen 127 eta 124 Lekunberrin.

Lortuko al dugu? Gaurtik aurrera sinadura bilketarako epea irekita egon da. Leitzan esaterako, Eguberrietan honako 4 egunetan jarriko dugu mahaia atxikimendu orriekin: Orantzaroko egunean (goizean eta arratsaldean), abenduaren 30ean ostiraleko ferian, abenduaren 31n arratsaldean (San Silbestre lasterketaren tenorean) eta urtarrilaren 5ean (Errege magoen kabalkadaren garaian).

Animatu eta hurbildu mahaira “Hemen gaude” proiektuarekin bat egitera! Zure sinadura eta babesa beharrezkoak izanen dira!

Erakus dezagun mendialdeko herri-tarrok ere gai garela batu, bidea adostu, erabakia hartu, emaitza errespetatu eta aurrera egiteko! Hemen gaude!

Mendialdeko “Hemen gaude!” taldea





LeitzEKO

Kontsumo Taldea

Kontsumo eredu berrien bila

2014ko Kultur Aroaren ekitaldien artean “Kontsumo eredu berriak” mahai- ingurua antolatu zuen ALKE Kultur Taldeak, honako hiru gonbidatuekin: Basaburuako kontsumo taldeko kide bat, Basherrri sareko beste bat eta Baztango haragi-ekoizle bat. Asmoa zen kontsumo eredu berriekin interesa izan zezakeen jendea biltzea eta kontsumo talde bat herrian sortzeko lehen urratsak ematea. Kontua da, bazegoela orduan herritar bat bere baratze-ko produktuak saltzeko prest zegoena, eta kontsumitzaileak bilatzeko aitzakia izan behar zuen, nolabait, mahai-inguruak. Han bildutakoek gaiaren inguru-

ko hausnarketa sakona egin genuen eta konturatu ginen barazki-saskiez harago bazegoela zer landua. Beraz, hitzordua egin eta taldetxoa osatu zen bertan kontsumo taldea zer eta zertarako izanen zen pentsatzen hasteko. Hura izan zen LeitzEKO Kontsumo Taldearen abiapuntua.

Taldearen oinarri ideologikoa eta filosofikoa ekonomia kontzienteagoa, arduratsuagoa eta solidarioagoa bultzatzea da, pentsatzen dugulako gure kontsumo erak eta ohiturak produkzio eta ekonomia-sistema jakin bati lotuak daudela eta horiek denek ondorioak dituztela bai osasunean, ingurunean

baita jendartean ere. LeitzEKO Kontsumo Taldeak bere ekimenen bidez gogoeta bultzatu nahi du, gure bizitzako beharrei eta horiek asetzeko bideei buruzko gogoeta, alegia. Taldea osatzen dugunok gure erabakien jabe izan nahi dugu eta zentzu horretan kontsumo arduratsuagoa sustatu leitzarren artean, uste dugulako kontsumitu daitekeela era osasuntsu eta justuan natur-ondarea errespetatuz.

Helburu horrekin bi urte hauetan lan arlo ezberdinak garatu ditu taldeak. ELIKADURA BURUJABETZArako bidean asteroko saskia izan da LeitzEKO Kontsumo Taldeak abian jarri duen

lehen ekimenetako bat. Gaur egun taldeko bazkide diren zortzi familiak jasotzen dute saskia. Bertako ekoizle batek modu ekologikoan ekoizten dituen garaian garaiko barazkiez osatua dago, eta astelehenero banatzen da. Horrez gain, hilero eskaintza bat ere egiten da e-mailez, Leitzako baserri eta baratzeetan ekoiztutako produktuak (eztia, sagardoa, banabarrak, mermeladak, gazta, axuriak, untxiak, patxarana,...) eta Nafarroako beste toki batzuetakoak eskainiz (arroza, dilistak, olioia, zerealak, ...) beti ere kalitatea, natura eta ekoizlearen duintasuna irizpidetzat hartuta.

Azaroko bigarren igandean antolatzen den bertako produktuen azoka da beste ekimen bat. Gure ekoizle eta bereziki gure baserriarren jakinduria eta eza-gutza zabaltzeko erakusleho izan nahi du azokak. Bertako produktuari merezi duen lekua eskaintzea, baserriarrak protagonista bihurtzea eta horrela lehen sektorea duintzea da asmoa. Parte hartu nahi duten herriko ekoizle guztiei irekita dago azoka, eta udalaren babesa du. Denborarekin maiztasun handiagoa izango duen azoka egiteko asmoa ere badago, interesa duten ekoizleekin eta udalarekin batera lantzeko.

ERRIGORA proiektuaren garapena ere LeitzEKO Kontsumo Taldearen esku dago une honetan. Hiru kanpaina egiten dira urtean: otsailean olioarena, udaberriaren kontserbena eta udazkenean saskiarena. Bestalde, bertako produktuen kontsumoa sustatzeko asmoarekin herriko komertzio eta ostalariekin ere gaia lantzen ari gara taldean, eta helburu berarekin eskolako jantokian ere eragiteko asmoa badago gerora. Proiektu horiek guztiak osatzeko eta gaiaren inguruan sensibilizatzen joateko hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, irratsaioak etabar. antolatzen ditugu urte osoan.

ENERGIA BURUJABETZA da gure beste lan ardatzetako bat, dagoeneko inork ez baitu zalantzan jartzen energiak



gure eguneroko jardunean duen garrantzia. Oinarrizko baliabide bat izanik, kontsumo energetikoa murriztea eta kontsumitzen dena jatorri berriztagarriagokoa izatea da LeitzEKO Kontsumo Taldearen helburua epe motzean. Epe luzean berriz, energia hori kontsu-

mitzen den puntutik ahalik eta hurbilen ekoiztea. Gaur egungo eredu energetikoa jasangaitza denez, txikitik hasi nahi dugu gauzak aldatzen eta Burujabetza Energetikoa ekarriko digun bidea jorratzen. Momentuz, jardunaldiak antolatuta ditugu bi urte segidatan gaiaren inguruan



sentsibilizatzen joateko. Energia neur-gailua ere badu taldeak bazkideen esku-ra, etxeetako kontsumo erergetikoa neurtu ahal izateko. Hortaz aparte, aholkularitza ere eskaintzen dugu kontsumoa murrizten joateko.

MUGIKORTASUNA da beste arlo bat. Gaur egun gure eguneroko bizitzan beharra bihurtu dena: lanerako ez bada, ikasketak burutzeko, edozein gestio administratibo egiteko... Leitzako garraio publikoaren aukera eskasengatik, herri-tarrak kotxea hartzerara behartuak gaude. Hori dela eta, kotxearen erabilera arduratsua bultzatzeko asmoz batetik, eta hainbat herritarren beharrei erantzuteko bestetik, proposamen alternatiboa landu du taldeak: **Tartarkar** da emaitza. Kotxea partekatzeo aukera eskaintzen duen interneteko aplikazio bat da, Leitzatik eta Leitzara kotxez egiten diren bidaien iragarki-taula birtuala. Baina ez hori bakarrik; aplikazioak, baliabide praktikoak izateaz gain, energia kontsumoari

eta eredu indibidualari buruzko gogoe-ta eragilea ere izan nahi du. Bertan parte hartu ahal izateko **tartarkar.eus** webgunean sartu, datuak eman erregistratzeko, eta bidaiaria eskaintzeko edo bertan argitaratu den bidaiaren bat konpartitzeko aukera ematen du.

Lan-arloekin bukatzeko, KOMUNIKAZIOA ere aipatu behar da. Aurten go ekainean jarri genuen martxan LeitzEKO Kontsumo Taldearen webgunea: **www.leitzekokt.eus**. Espazio interaktiboa izatea nahi dugu: alde bategatik taldearen funtzionamendua hobetzeko tresna, eta bestetik taldeak lantzen dituen arlo eta gaien erakusleihoa. Sarean dago dagoeneko, eta etorkizunean proiektu berriak lantzen doazen neurrian bere funtzioak ere hortara egokitzen joatea da asmoa. Horretaz gain, hilean behin informazio boletina bat ere bidaltzen zaie bazkideei e-mailez, kontsumo arduratsuen inguruko albiste, artikulua eta ekimenen berri emateko.

LeitzEKO Kontsumo Taldeak une honetan 50 bazkide-familia ditu guztira. Urte bukaeran egiten den bazkideen batzarrean adosten dira taldeak garatzeko dituen lanak eta proiektuak. Talde Eragileak hartzen du hori guztia suspertzeko eta koordinatzeko lana. Astelehenero elkartzen da Talde Eragilea arratsaldeko 7etan Atekabeltzen duen bulegoan. Horrez gain, proiektuak garatzeko azpitaldeak daude, eta horietako bakoitzak har dezake proiektu bat edota bat baino gehiagoren ardura. Bazkide bakoitzak aukera du bai Talde Eragilean, bai azpitalde horietakoren batean parte hartzeko.

Eta amaitzeko esan LeitzEKO Kontsumo Taldearen bazkide izateko 20 euroko kuota bakarra ordaindu eta izen-bizenak, telefono zenbakia eta e-maila eman besterik ez dela egin behar. Taldearekin harremanetan jartzeko e-maila hau da: **info@leitzekokt.eus**.

LeitzEko Kontsumo taldea



tartarkar.eus

tartarkar kotxea konpartitzeko aukera eskaintzen duen aplikazio bat da, herritik eta herrira mugitzeko aukerak haunditzen dituena eta gainera garraio-eredu indibidualistari aurre egiten diona.

- **tartarkar** ez da bidaiaria agentzia bat, borondatezko lanarekin aurrera ateratzen den proiektua baizik.
- **tartarkar** komunikazioa errazteko tresna bat da, ez besterik. Erabiltzaileen esku dago mezu bitartez kontaktua egin eta bidaiaria konpartitzeko tratua egitea.
 - Hobetzeko proposamenak gustora jasoko ditugu kaixo@tartarkar.eus helbidean, eta, ahal dugun neurrian, erantzuten saiatuko gara.

NOLA ERABILI?

1. SORTU KONTUA. Tartarkar erabiltzeko kontu bat sortu behar da. **tartarkar.eus** helbidean erregistratu zaituz benetako helbide elektronikoa batekin. Mezu bat jasoko duzue kontua martxan jartzeko. Kontua aktibatuta behar da loturan klik eginez.

2. EZIZENA. Erabiltzaile bakoitzak ezizen bat jasoko du. Helbide elektronikoa eta pasahitza erabiliz zure kontuan sartuta goiko eskuinaldean dagoen izen hori da zure ezizena. Horrela, anonimotasuna bermatzen du aplikazioak. Gero mezua bidaltzerakoan benetako izena esatea norberaren esku dago.

3. IKUSI BIDAIAK. Behin zure kontuan sartuta, "Bidaiak" atalean ikusiko dituzue eguneratuta dauden bidaiak.

ADI! bidaiak argitaratu egin daitezke, eta argitaratuta dauden bidaiak aukeratu eta mezua bidali ere bai. ORDEA, ezin da bidaiaria bat ESKATU. Eskatu ez, eskaini bai. Eskainitakoa hartu ere bai!

4. KONTAKTATU. Bidaiaren bat interesatzen bazaizu "Kontaktatu" botobea sakatu eta mezua idazteko aukera irekiko zaizu. Bidali mezua.

5. MEZUAK JASO ETA ERANTZUN. Norbaitek mezuren bat bidali badizu, zure e-maillean jasoko duzue abisua. Erantzuteko **tartarkar.eus**-eko zure kontuan sartu beharko zara, "Jakinarazpenak" atalean, eta bertatik erantzun. Kontuz: ezin duzue e-mailetik zuzenean erantzun, mezua ez zaio ailegatuko.

5. ARGITARATU ZURE BIDAIA. "Gehitu bidaiaria berria" sakatu eta sartu zure bidaiaren datuak, edo bestela "Nire bidaiak" atalean bidaiaria editatu eta argitaratu.

ZEIN DATU ESKATZEN DITU APLIKAZIOAK?

Hiru botoi daude lehenbizi sakatzeko:

argitaratu: sakatu gero, argitaratu egiten da; bestela, "nire bidaiak" atalean gordeko da argitaratu gabe.

Joan-etorria: joan-etorriko bidaietarako. Bakarrik joaneko bidaiaria eskaini nahi bada, EZ sakatu aukera hau.

Astero: asteko egun bat baino gehiagotan errepikatzen diren bidaiaren kasuan sakatu.

Data

Ordua

Irteera eta helmuga: bietako batekin ezinbestean izan behar du Leitza.

Informazio gehiagorako tartea: edozein informazio gehigarri idazteko tokia



zer diozu?

eta zuk,

Aitor Zabaleta



- **Musika zure bizitzan beti presente egon da: hainbat musika taldetan parte hartu izan duzu, orain Esne Beltzako baxujolea zara, ... Zer da musika zuretzat?** Eskape bat da neretzat bai entzuten ai naizenen eta baita eszenatoki gainen e.
- **Musika jotzea ala entzutea gustatzen zaizu gehien?** Bakoitze bere momentun baño egie esan behar badot, jotzeko garaien beste sensazio batzuk izateittot gehio betetzen naueanak, kontzertu baten izan edo etxen ensaiatzekoan izan.
- **Zer musika estilo entzuten duzu? gustuko duzun talde edo abestiren bat?** Ba alde hortatik nahiko zabala da nere biblioteca musikala, jazz, pop, rock funky, reggae, klasikoa, punk... hainbeste musika estilo izanik ulergaitze itten zait inor estilo bat edo bi aittuz eottea erabat, estilo guzitan daude talde eta abesti onak. Abeslari bat: Freddie Mercury Talde Euskaldune: King Mafrundi
- **Irakurtzeko zaletasunik baduzu?** Bai gustoko dot baño ez naiz liburuk irensten dittun hoitakoa.
- **Irakurri duzun azken liburua, edo gustatu zaitzun bat?** Ana Gavaldaren "juntos nada mas" edo Lucio Urtubian "La revolucion por el tejado" autobiografikoa.
- **Bidaiatzen al duzu? Nora jotzen duzu mendira edo kostara, hondartza aldera?** Ba hau re nahi bezainbeste ez. Amerika Asia eta Europara indako bidai gehienak musikakin lotuta indakoak izandu die. Familikin berriz inguruko herrialdetan ibiltzen naiz, gehienetan kostalden.
- **Zer da inoiz falta ez dena zure bidai-maletan? Zer da derrigor eraman nahi izaten duzuna oporretara?** Inoiz falta ez dena aurikularrak eta ezpaineneta crema.
- **Zure herriari begira jarrita, nola ikusten duzu Leitza? Zerbait soberan edo faltan somatzen al duzu?** Ongi ikuset. Beti izanen da zer ittekoik baño martxan dauen herri bat dela iruitzen zat. Faltan: Euskera gehio entzutea gustatuko litzieke gehienbat gurasoon arten, gu bait ga gure seme-alaban eredu.
- **Zein da zuretzat urteko egunik gustukoena?** Eskolako azken eune, izan e ordun hartzen dittot oporrak nik e eta lasaiego ibiltzen naiz etxeakoan eta kontzertutan.

Izaskun Urrutia



- **Musika zure bizitzan beti presente egon da: umetan abesbatzan aritutakoa, trikitixa irakasle ere izan zinen... Zer da musika zuretzat?** Musika sentimendu asko piztu dizkidan bidea izan da eta bada. Nere bizitzan, musika entzuteak asko lasaitu izan nau, baita momentu txarretan ere.
- **Zer musika estilo entzuten duzu? gustuko duzun talde edo abestiren bat?** Bufff, nere estiloa definitzea ez da errega, estilo desberdin asko ditut gustoko-eta. Garai batean, Delirium Tremens, Taures Zurdos, Guns and Roses, Antonio Flores, Kashbad, Raimundo Amador, Negu gorriak, eta nola ez nere oso oso gustokoa den Su Ta Gar, a ze momentu onak pasa ditudan Su Ta Garreko kontzertuetan lagun giroan. Familia giroan Mikel Laboaren kontzertu lasai bat. Kotxean bakarrik noanean Rosario Flores, eta gaur egun, nire etxekoe-kin (senarra eta umeak) Esne Beltza. Eta gustoko abestia, nola ez: Esne Beltzaren "Juntu". Oso hunkigarria da abesti hau, justu nire bizitzako momentu gogorrean sortu zutena. Negar asko egin dudana eta aldi berean lasaitu nauen abestia izan da.
- **Irakurtzeko zaletasunik baduzu?** Ez naiz nobela irakurle tipikoa. Bestelako informazioa ematen didaten liburuak irakurtzen ditut.
- **Irakurri duzun azken liburua, edo gustatu zitzaituzunen bat?** "Un año para toda la vida" Mariela Michelarena.
- **Bidaiatzen al duzu? Nora jotzen duzu mendira edo kostara, hondartza aldera?** Bidaiatzen dut baina ez nahi bezainbeste. Txikitatik gurasoe-kin bidaiatu izan dut eta oroitzapen izugarriak ditut eta orain nire familiarekin joaten naiz opor egunetan. Kostara joaten gara baina ez gara hondartza zaleak.
- **Zer ez da inoiz falta ez dena zure bidai-maletan? Zer da derrigor eraman nahi izaten duzuna oporretara?** Ilusioa. Ez zait inoiz ilusiorik falta. 15 egun lehenagotik maleta prestatzen hasten naiz! Derrigorrez, nire alabaren lotarako panpina eraman behar izaten dugu, lo gustora eta lasai egitea nahi baldin badugu.
- **Zure herriari begira jarrita, nola ikusten duzu Leitza? Zerbait soberan edo faltan somatzen al duzu?** Ez dut deus soberan ikusten. Zerbitzu dezente dituen herria da, eta uste dut ditugun denda, komertzio, negozio txikiak herri batean beharrezko direla, herria birizik eusten dutelako. Herritarrek bertan erosteko duten aukera oso ona da.
- **Zein da zuretzat urteko egunik gustukoena?** Orain dela gutxi arte, gabonak famili giroan, baina urteak pasa ahala, familia gutxitzen doa batzuk falta izaten direlarik. Hortaz, udako oporrak dira urteko egunik gustukoena.